


ikastolak

**JASO IKASTOLA
IRUÑEA**


Emakumeen aurkako indarkeriaren egunean, azaroaren 25ean, jarduera ugari egin genituen.

Genero berdintasuna, baloreak proiektu bihurtuz

GENERO BERDINTASUNEAN HEZTEKO ETA PREBENTZIO LANA EGITEKO EKINTZA MULTZOA JARRI DUGU MARTXAN AURTEN

Testua eta argazkia Jaso Ikastola

Jaso Ikastola, Nafarroako Elkartasun Sareko kide da. 2017-2018 ikasturteko plangintza-aren barruan, Genero Berdintasunean hezteko eta genero indarkeriaren prebentzio lana egiteko, hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako ekintza-multzoa jarri dugu martxan.

HELBURUA Ikastolak oso paper garrantzitsua betetze du pertsonen

heziketean. Helburua ez da soilik akademikoki heztea, balioetan hezteko konpromisoa ere badugu hezkuntza-komunitatea osatzen dugun profesionalok. Beraz, lan handia egin dezakegu ikastolan ikasleak berdintasunaren balioetan hez daitezen; hala nola, sentsibilizatzea, motibatzea gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan, genero indarkeriaren prebenitza, gizartearen estereo-

tipo sexistak agerian jartzea... Horregatik guztiarengatik erabaki genuen Genero Berdintasuna Proiektua abian jartzea.

NOLA EGIN DUGU? Hezkuntza komunitate osoa inplikatu dugu proiektuan: ikasleak, klustroak eta familiak. Horretarako hainbat jarduera egin ditugu hurrenez hurren:

Prestakuntza jarduera: Kontzien-

tziarioaren lehen urratsa izan da. Genero Berdintasunaren inguruan klustro osoak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezkoa Bigarren Hezkuntza eta Zuzendaritza) prestakuntza jaso du. UPNAko irakaslea eta ikertzailea Rut Iturbiderek jorratu dugu. Aukera paregabea izan da hain barneratua ditugun hainbat jokabide desegokiez hausnartzeko eta horiek saihesteko.

Ikasleen esku-hartzea: IPES-ek prestatu dizkigu unitate didaktikoak. Klustroak aztertu eta klaseetan noiz eta nola landu erabaki da. 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan zehar landuko da ikastolako etapa guztietan. Proiektuaren xede den

gaia programazio didaktikoetan sartuko dugu. Noski, Haur Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lantzen dena adinaren arabera egokitu beharko da. Helburua da ikasleen ehuneko handi batek proiektuan parte hartzea.

Familiak: Familiak era parte hartuko dute proiektuan, uste baitugu kontzientziazio lan honetan pertsona guztien laguntza ezinbestekoa izan dela. Gurasoentzako Hezkuntza Lantegia antolatuko dugu eta bertan, gurasoentzako bereziki bideratutako formazio-mintegia eskainiko digu Rut Iturbidek.

Proiektua ez da amaitu, baina orain arte landutakoak oso balorazio positiboa egiten dugu. Ikastolan modu sistematikoan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzea ezinbestekoa da. Proiektua ikusgaitasun handia izaten ari da ikastetxean baina abiapuntua besterik ez da. Ikasleak oso modu aktiboan parte hartzen ari dira proiektuan, irakasleak eta familiak zer esanik ez. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein sareko kide da Jaso Ikastola?
 2. Zein izan zen berdintasunaren kontzientzia pizteko emandako lehenengo urratsa?
 3. Nork eskainiko ditu Guraso Lantegiko saioak?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Jon Garbalena (Baztan Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Miren Arraiza (Jaso Ikastola).



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA



fundación osasuna

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.